

**07/08ko MAISU-MAISTREN
LEKUALDATZE-LEHIAKETA**

DEIALDIA NOIZ: 2007ko azaroaren 30eko EHAA.

ESKAERAK NOIZ: 2007ko abenduaren 1etik 20ra (biak barne)

Partehartzaileak parte hartzeko eskaeraren kopia bat gordetzea komeni da, data jarrita eta zigilatua.

ESKAERAK NON: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lurralde Ordezkaritzetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak sartzen dituen aldaketekin, 38.4. artikuluan aipatzen dituen egoitzetako edozeinetan.

ESKAERAK NOLA: Eskaera guztiak eredu ofizialari (III. eranskina) lotuko zaizkio, jarraian adierazten den legez lortu ahal izango duzuen:

- Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan, Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzan, baita Hezkuntza Sailaren web orrian ere: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net, langileak> Pertsonal Hornikuntza- Irakasleak> lekualdatze-lehiaketak.
- Internet-en bidez. Horretarako, posta pertsonalatuaren klabeak irakasle.net esparruan (Internet-en altan ematea eskatzeko) izan beharko dira deialdia EHAAan argitara ematen den datan.

Ikastetxeak edota herriak eskatzeko, normalizatutako eredu erabili beharko da derrigorrean eta ez dira eredu horren fotokopiak baliagarritzat joko.

Eskaera betetzeko, argibideen III. eranskinean adierazitakoaren arabera jokatu da. Halaber, eskaera-inprimakiak atzeko aldean sartzen dituen argibideak ere hartuko dira kontuan.

BAREMAZIO MOTAK: 2006ko urriaren 24ko aginduaren bidez (2006ko azaroaren 7ko 212. EHAA) deitutako lekualdatze-lehiaketan parte hartu zuten eta baremoko e), f) eta g) atalen behin-betiko puntuazioari eutsi nahi dioten lehiatzaile horiek, deialdiaren oinarriek bere egunean xedatzen dutenaren kalterik gabe, eskaeraren dagokion atalean (**Aurreko deialdiaren puntuazioa**) adieraziko dute eta atal horietan emandako puntuazio bera emango zaie. Kasu horretan ez dute argudiatutako merezimenduetako bat bera ere egiaztatu beharko.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Arabara	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zemarkalea, 62 behea 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martzelo Zelaieta 75, 2-A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org



Barematzearekin ados dauden arren barematutakoei merezimendu berriak gehitu nahi dizkieten horien kasuetan, **Merezimendu berriak gehitu** laukia markatuko dute eskaeran eta aurreko lehiaketan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epeak bukatu ondoren hobetutako merezimenduak erakutsi beharko dituzte, ez besterik. Ez da beste merezimendurik onartuko.

2006ko urriaren 24ko aginduaren (2006ko azaroaren 7ko 212. EHAA) bidez deitutako aurreko lehiaketan parte hartu ez duten, parte hartzeari uko egin zioten edo esleitutako puntuazioa aldatu nahi duten funtzionario horiek dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute, baloratua izateko. Horretarako, **Baremazio berria** dagokion laukia markatu beharko dute eskaeran.

Lehiatzaileak adierazitako hiru aukeretako bat bera ere adierazten ez badu, barematze berriaren aldeko aukera egiten duela interpretatuko da.

AGIRIEN KONPULTSATZEA: Merezimenduak justifikatzeko agiri guztiek konpultsatzearen eginbidea eraman beharko dute.

GARRANTZITSUA

- Gogorarazi behar da parte hartzeko eskaerarekin batera, ezarritako epearen barruan, aurkeztu behar dela alegatzen diren merezimenduak justifikatzeko dokumentazioa. Epeak bukatu ondoren, ez da inolako dokumentaziorik onartuko.
- Eskaera betetzean ahalik eta arretarik handiena ipintzeko eskatzen da, akatsak, eskaeren atalean batez ere, izan ez daitezten. Gogoan izan ondorengo laukiak izan behar dituela, derrigorrean, ikastetxe-eskaera batek:
 - **8** zenbaki-kode + “**C**” letra (9 zenbaki herriaren kasuan)
 - **3** lauki espezialitaterako
 - **Lauki 1** hizkuntz eskakizunerako (**A, C ala D**)

Eskaerak osatu besterik ezin izango dira egin, **INOLA ERE EZ** aldatu edo berriak sartu.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea, 62 behea 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martzelo Zelaieta 75, 2-A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic KARRIKA 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org